

# ESKOLA ZAHARREKOAK

Altzoko eskola errealitate garrantzitsua da altzotzarrentzat gaur egun. Imaz Bertsolaria izenarekin ezagutzen dugu oraingo Altzoko eskola. Baina bada beste errealitate bat ere. Beste herri guztietan bezala, Altzon bazen eskola bat.

David Zapirainek idatzirik Altzotik Altzora liburuak eta eskolari dagokionez, 1817. urteko kontuak aipatzen ditu. Liburu berean irakurri daiteke 1901. urtean, sexu bereizketarik gabeko eskola mistoa sortzeko, Elizalde etxea aukeratu zela. Ordura arte neskak Lizarribar maisuaren etxera joaten ziren eta mutilak Santa Barbarara.

Manuela Aldalur 95 urteko altzotar/zegamarrak esaten du bera 7 urterekin hasi zela eskolan, beraz 1920. urtean eta garai hartan Aizpeko Elizalden omen zegoela eskola. Manuelak dio beranduago egin zutela eskola berria udaletxe azpian.

Merezi du Manuela Aldalurrek garaiko eskolari buruz egiten dituen aipamenak hemen jasotzea. Berak dioenez, Aizpeko Elizalden omen zen eskola, 7 urterekin hasi omen zen eskolan eta komunioa egiteko prestatzeko hasi omen zen eskolan. Dena euskaraz egiten omen zuten. Manuelak gogoan du garai hartako maistraren izena, Francisca Perez omen zen maistraren izena. Erdalduna izanagatik euskaraz bazekiela dio Manuelak.



Altzoko eskola berria berriz, gero egin zutela dio Manuelak, Kontseju Azpian.


Hari mutur honi tiraka, Altzoko udal artxibora jo eta bertan ageri diren dokumentu eta kontu batzuk aipatuko ditugu ondoren. Honekin batera esan, mereziko duela arreta, denbora eta bitarteko gehiagoz gaia tratatzea eta artxiboko aipamen hauek eta hemen aipatzen ez diren beste batzuk ere argitaratzea.

Lehendabizi azertu dugun txostena Udaletxean 1921. urtean idatzitako proiektua izan da, hain zuzen, Altzon eskola berria eraikitzeko egindako proiektua. Eskuz idatzirik txostena da, Antonio Aguirrek sinatzen duena. Data eta lekuari dagokionez, honela aipatzen ditu: Villafranca 21 de septiembre 1921.

Eskola mistoa egiteko prestatutako proiektu honek, 10.623,93 pts aurrekontua zuen. Txostenean agertzen da obren likidazioa ere, 10.965,53 pts-koa.

Proiektuan irakur daiteke eskola berriak, 40 ikasle hartzeko lekua izango zuela. Horretarako erabiliko den gelaren kapazitatea 194,5 m kubiko zirela eta ikasle bakoitzarentzat 4,50 m kubiko izango zirela. Gauza bitxi bat ere agertzen da txosten

honetan, memoria, aurrekontua eta likidazioarekin batera plano batzuk agertzen dira. Plano horiek 1913. urtekoak direla esaten da eta ez 1921koak.



Eskola berria eraiki eta urte gutxira beste dokumentu bitxi bat ageri da, 1924. urtekoa eta bertan ageri dira apirilean hamar egun baino gehiagoz eskolara joan gabe gelditu diren ikasleen izen abizenak. Ikus zerrenda

Villa de ALEGRIA *Alzo*

Año de 192*4*

Escuela Nacional de *mixta* niños.

Mes de *Abril*

ESTADO demostrativo de las faltas de asistencia que en número superior a diez ha cometido los niños comprendidos en la edad escolar durante el expresado mes, el cual se remite la Alcaldía de esta villa a los efectos consiguientes.

Nombre y apellidos de los niños.	DIAS																															Total de Faltas		
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31			
<i>Venancio Emausquin</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15
<i>Martin Maix</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15
<i>Antonio M<sup>a</sup> Galarraga</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15
<i>Bartolomé Amadoral</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+		14
<i>Manuel M<sup>a</sup> Galarraga</i>	+	+	+	+	-		+	+	-	+	-	+	+		+	-															+	+	+	11 1/2
<i>Pío Galarraga</i>	+	+	+	+	-		+		-	+	-	+	-		+	-															+	+	+	11 1/2
<i>Manuela M<sup>a</sup> Herrero</i>	+		-				+	+	+	+	-		+	+																	+	+	+	10 1/2
<i>Ignacia Emausquin</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15
<i>Agustina Garayalde</i>	+	+	-	+	-		-	-	-	-	-	-	-		-	-															+	+	+	11
<i>María Luleaga</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15
<i>María Domencoro</i>	+	+	+	+	-		+	+	+	+	+	-		+	+																+	+	+	15

AlroAlegria a 30 de *Abril* de 192*4*

LA MAESTRA

*Francisca Perez*



1929. urteko agiri bat azaltzen da, Seccion administrativa de Primera enseñanza Guipuzcoa) non esaten den ordura arte Alzoko maistra izan den Francisca Perez Alvarez, (Manuela Aldalurrek aipatzen zuena hain zuzen) Urnietara destinatu

dutela. Berehala agertzen da beste idatzi bat esanez, Maria Luisa Bru Usandeveras izendatuz maistra interina bezala. Baita ere bere urteko soldata 2.000 pezetakoa izango dela esaten da. Dirudien ez zuen asko iraun Altzon, Maria Luisa Bruk, urtebete baino lehenago utzi baitzuen Altzoko eskola. Constanza Areta Quintana izango da aurrekoaren hutsunea beteko duena, 1930. urtekoa da agiri hau. Urte berean egiten da beste aipamen interesgarri bat esanez, Altzoko eskolan 18 neska eta 33 mutil daudela eskolarizatuak.

## 25 AÑOS DE PAZ

Oso bestelako kontuak aipatzen dira 1936ko Abuztuaren 31ko idatzian. Idatzia, Junta Carlista de Guerra de Guipuzcoa-ko menbretea ageri da. Honela dio bere pasarte batzutan:

*La finalidad principal del movimiento iniciado por el ejército y las fuerzas mas sanas de la nación consiste en sustituir totalmente el espíritu que inspira el organismo del Estado. Este va a ser modificado fundamentalmente, de la raíz a la cúspide, animándolo con los principios que constituyen el genio de España.*

*Palanca esencial para esta obra de transformación del espíritu español es la Enseñanza que, por consiguiente, ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católico y netamente españolista sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase.*

*Los maestros instructores han de incorporarse resueltamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente*

*Se constituirá en cada pueblo Consejo local de primera Enseñanza, sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se darán entrada en la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad.*

*La bandera española ondeará obligatoriamente en la fachada principal de todas las escuelas y centros de enseñanza. El Crucifijo presidirá todos los locales destinados a las clases y habrá grandes mapas murales de España.*

*El maestro instruirá también la Historia Sagrada y la Historia de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos, y en especial de los guipuzcoanos y mas concretamente, de los hijos ilustres de cada pueblo a la formación y a las gloriosas gestas de la nación española, así como los beneficios que las provincias Vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.*

*A los niños que solo sepan el vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñara además con especial empeño el castellano. A los niños que puedan entender la enseñanza en castellano se les dará aquella en esta lengua.*



Giro honek jarraituko zuen hurrengo urteetan ere, aipagarria da 1938. urtean Inspekziotik Altzora heltzen den oharra eta Altzotik ematen zaien erantzuna ere.

*Habiendo llegado a conocimiento de esta Inspección por información oficiosa que en algunas escuelas nacionales y privadas de la provincia no se cumple lo mandado por la Superioridad de solemnizar el acto de izar y arribar la bandera entonando el himno nacional con el brazo en alto el maestro o la maestra y los niños y niñas a la entrada y salida de las clases.....se solicita la aclaración expresa de si se cumple o no con esta obligación...*

*En contestación a su atento escrito, tengo el honor de participarle que la escuela mixta de esta villa cumple con lo mandado por la Superioridad...*

## **IMAZ BERTSOLARIA**

Hutsune handia dago hurrengo urteetan eta 1981. urteko agiria aipatuko dugu. Urte honetan Altzoko Udalak ordu-arteko eskolaren izena aldatzea eskatzen du. Jakin behar duzue “25 años de Paz” zela Altzoko eskolaren izena eta eskaera hau egin ondoren, gaur egun duen izena jarri zitzaiola “Imaz Bertsolaria” alegia.

Garai batean neska mutiko ugari biltzen bazen ere Altzoko eskolan, 1989. urtean oso haur gutxi zegoelako, itxi egin zen Altzoko eskola. Urte batzuk eskola itxita egon ondoren, 1998. urtean, bederatzi urte beranduago ireki zen berriro Altzoko eskola. Gipuzkoako Lurralde Ordezkararen idatzian espresuki agertzen da 8 ikasle behar direla horretarako.